

ONLINE IKASTAROA

Ikusezinak izatetik protagonista izatera: ezagutu beharreko XX. eta XXI. mendeetako emakume artistak

SARRERA

Guggenheim Bilbao Museoaren lehenengo online ikastaroak aztergai izango du, hein batean behintzat, emakumeek XX. eta XXI. mendeetako arte-joeretan izandako protagonismoa. Jakina denez, emakume artistak itzalean egon izan dira (salbuespenak salbuespen) harik eta XIX. mendearen amaiera aldera haietako batzuk margolari inpresionisten artean nabarmentzen hasi ziren arte beren sormen-lanari esker.

XX. mendearen hasieran, emakume artista kubo-futurista eta abstraktu ugari gailendu ziren. Laster nabarmendu ziren Bauhaus Eskolako emakume artista gazte askok, batez ere argazkilari, margolari eta ehungile gisa.

Gerra arteko aldia —1918tik 1939ra— oso garai emankortzat jo daiteke emakumea sorkuntza artistikoaren alorrean sartzeari dagokionez, hainbat modalitatetan aritu baitziren, hala nola pinturan, eskulturan eta argazkilaritzan. Parisko zirkulu surrealistan ibili ziren emakumeek protagonismo berezia izan zuten lengoia artistiko berriak sortzen.

Bigarren Mundu Gerra betean, Peggy Guggenheim Erresuma Batutik AEBra joan zen bizitzera. Han, espresionismo abstraktua sustatu zuen Clement Greenberg arte-kritikariarekin batera. Hainbat izan ziren Ipar Amerikako arte-estilo berri horretan aritutako margolariak, tartean Jackson Pollock, Mark Rothko, Willem De Kooning eta Robert Motherwell. Zenbait emakume ere aritu ziren, esaterako, Lee Krasner, Elaine De Kooning eta Helen Frankenthaler, eta espresibitate handiko lanak egiteaz gain, berrikuntza tekniko garrantzitsuak sartu zituzten.

1947tik aurrera, berariazko arte iparramerikarra sortu zela esan liteke: Parisek artearen munduko hiriburu izateari utzi zion, eta New Yorkek hartu zuen haren lekua, horrek zekarren guztiarekin. Hirurogeiko hamarkadan artista ugari Pop arteari heldu zioten, 1956an Pollock hil eta gero agertu zen joera errealistari, hain zuzen. Zalantzarik gabe, artista horien guztien artean ezagunena Andy Warhol polifazetikoa eta mediatikoa izan zen. Warholek musika-taldeak ere sustatu zituen, hala nola The Velvet Underground ospetsua; aldi batez han abestu zuten, arrakastaz, Nico abeslariak.

Garai hartan New Yorken bizi izan zen jai-giro dibertigarri eta bakezale hippiearen eraginez, beste era batera hasi ziren ulertzen *happening* izenekoak. Haien abiapuntua berrogeiko hamarkadaren amaieran Ipar Karolinako Black Mountain College eskola esperimentalean John Cage musikariak eta Merce Cunningham koreografoak abiarazitako esperientziak izan ziren. Performanceak barrualdeetan edo leku huts eta urrunetan egiten ziren. Gorputz-hizkuntza gero eta garrantzitsuagoa bihurtu zen, Ana Mendieta bazoetan egin zituen lanek erakusten duten bezala. Emakume asko ausartu ziren naturan esku hartzera, beren gorputza protagonista gisa hartuta, eta, ondorioz, ordura artekoak ez bezalako artelan motak sortu zituzten.

Hirurogeiko hamarkadaren amaieran eta hirurogeita hamarrekorearen hasieran ordenagailuak erabiltzen hasi ziren zenbait obra sortzeko. Horren eraginez, “teknologia berrien” bide zabal eta luzea hasi zen. Mundu digitala eta bideo-sorkuntzak ohiko bihurtu ziren, eta gaur egun ere pil-pilean jarraitzen dute. Azken adierazpen artistikoak sarean daude, haietako asko sorkuntza birtual izateko soilik pentsatuta baitaude; hau da, inoiz ez dute izango euskarri materialik. Litekeena da oraindik pentsaezina den zerbaiten hasiera izatea, bere garaian sorkuntza mota

GUGGENHEIM BILBAO

garrantzitsua izango dena, aukeraz betea, ez bakarrik artistentzat, baizik eta hartzaileentzat ere.

EGITARUA

I. modulua: Abstrakzioa eta Bauhaus

1906tik aurrera, pintura abstraktua agertu zen Hilma af Klint artista suediarren lanekin, eta, oso bizkor, lehenengo abangoardietako mugimendu artistiko gisa finkatu zen abstrakzioa. Errusian, emakume artista asko gailendu ziren mugimendu horren barruan. Noski, Alemaniako Bauhaus eskolan emakumeek ere protagonismo handia izan zuten, batez ere ehungintza-tailerrari esker. Kandinskyren eraginez, tapizetan eta alfonbretan diseinu geometriko abstraktuak ziren nagusi. Eskolako *Mädchen* (neska) ugariek —izendapen horrek, berez, badu mespretxu puntu bat— ekarpen handiak eta esanguratsuak egin zituzten, bai ehungintzan, bai argazkilaritzan.

1. **bideoa:** Abstrakzioaren hasiera

2. **bideoa:** Natalia Goncharova, Alexandra Exter, Liubov Popova eta Nina Kogan

3. **bideoa:** Gunta Stölzle Alemaniako Bauhaus eskolan izan zuen funtsezko zeregina

4. **bideoa:** Bauhaus eskolan lanean aritu ziren *Mädchen* desberdinak

II. modulua: Gerra arteko emakume artistak

Emakumeek arte-esparru desberdinetan izan zuten zeregina nabarmen finkatuz joan zen hogeiko eta hogeita hamarreko hamarkadetan. Artista askok oso zeregin garrantzitsua izan zuten. Adibidez, Dora Maarrek argazkilari gisa egin zuen lana erabakigarria izan zen Picassoren *Guernica* margolanak izan zituen fase guztiak argazkitan ikusi ahal izateko.

1. **bideoa:** Dora Maar

2. **bideoa:** Zenbait emakume margolari surrealista (Leonora Carrington, Remedios Varo)

3. **bideoa:** Maria, Marcel Duchampek zenbait obratako emakume-soinak margotzeko inspirazio-iturri erabili zuen eskultore brasildarra

4. **bideoa:** Frida Kahlo eta “bere errealtatearen” ikuspegi berezia, artistak berak esaten zuen moduan

III. modulua: Ipar Amerikako espresionismo abstraktua, Pop artea eta Frantziako errealismo berria

Espresionismo abstraktu iparramerikarraren arrakasta oso lotuta dago arte garaikidearen bildumagile eta mezenas Peggy Guggenheimekin. Hark zabaldu zuen, 1942an, New Yorken, *The Art of this Century* galeria, eta hasieratik babestu eta ezagutarazi zituen artista gazteak, tartean Jackson Pollock. 1947tik aurrera, Ipar Amerikako arteak autonomia bereganatu zuen Europan egiten zenari zegokionez, eta, hortik, Pop artea sortu zen. Bien bitartean, Frantzian, Yves Klein buru zuen errealismo berriak jarraitzaile ugari bereganatu zituen.

1. **bideoa:** Ipar Amerikako espresionismo abstraktua: bi emakume adierazgarri, Lee Krasner eta Helen Frankenthaler

2. **bideoa:** Pop artea eta Marisol Escobarren eskultura-lana

3. **bideoa:** Frantziako errealismo berria: Niki de Saint Phalleren eskulturak

4. **bideoa:** Louise Bourgeois, Estatu Batuetako nazionalitatea hartu zuen eskultore frantziarra, ezin joeratan sartu ezineko lengoia propioaren sortzailea

GUGGENHEIM BILBAO

IV. modulua: Performanceetatik teknologia berrien artera. Bestelako erronkak: arraza eta sexualitatea

XX. mendearen azken urteetan, gero eta nabarmenago bihurtu ziren eszena osatzen zuten emakume artista ugariak, eta beren lanak ordura arte pentsaezina zen lekua hartzen hasi ziren museoetan eta galerietan.

Performancearen arloan, asko eta asko izan dira lan pertsonal interesgarria egin duten emakumeak, esaterako Yoko Ono. Halaber, emakume argazkilari eta bideosortzaile askok teknologiarik aurreratuena erabili dute beren sormen itzela askatzeko.

Zenbait sortzaile euren ikuspegiगतिक nabarmentzen dira; Kara Walkerrek, adibidez, arraza eta sexualitatea bezalako gaiak jorratu izan ditu hasiera-hasieratik.

- 1. bideoa:** Artista performerrak: Gutai taldeko Atsuko Tanakatik Yoko Onora. Ana Mendieta eta gorputza bitarteko gisa
- 2. bideoa:** Teknologia berriak darabiltzaten sortzaileak, hala nola Itziar Okariz performerra eta Eugènia Balcells
- 3. bideoa:** Argazkilaritza gaur egun: Annie Leibovitz
- 4. bideoa:** Arraza eta sexualitatea oinarritzko gai gisa: Kara Walkerren obra